

DIRU SARRERAK

Negozia martxan jartzeko orduan beharrezko finantziario iturri nagusia bazkideen ekarpenak dira. Bazkide bakoitzak 110.000€ jarriko du, horrela guztira enpresaren kapitala 440.000€koa izango da.

Proiektua aurrera eramateko ekarpen horiekin ez da nahikoa. Gure negozioa martxan jartzeko estimatu dugun kostu handia dela eta finantza iturri gehiagoren beharra dugu. Hori dela eta banku bati mailegu bat eskatuko diogu, konkretuki 900.000€ mailegua. Horrela 1.340.000€ko aurrekontua izango dugu. Negozioaren jabetza horrela banatu egingo da: Miguel %25 , Mikel %25 , Adrian %25 , Julio %25 .

Diskoteka martxan dagoenean, diru sarrerak bi iturrietatik jasoko ditugu nagusiki:

- Sarreren salmenta: sarrera 30€tan salduko dugu. Estimazio eta ikerketen arabera gutxi gorabehera kalkulatu dugu batzbestez 600 sarreren salmenta izango dugula negozioa irekitzen dugun egun bakoitzeko eta hilabetero 16 egun martxan egongo denez gutxi gora behera, hilabetero lehenengo etapan lortuko genituzkeen sarrerak $600 \times 16 \times 30 = 288.000€$ koak izango dira
- Beste diru iturri nagusia edarien salmenta eta VIP zonaldeak izango dira. Aldagai hau oso aldakorra da, ezin baitugu jakin zenbateko kontsumoa egingo duen gure bezero bakoitzka. Baina estimazioen arabera bezero bakoitzaren gastua honakoa litzateke:
 - Kopak: edarien prezioa 10€tan finkatu dugu eta pertsona bakoitza batzbestez 3 kopa hartuko dituela kontutan harturik bezero bakoitzarekin 30€ sarrerak lortuko ditugu, eta estimazioen arabera $600 \times 30 = 18.000€/egunero$. Hilabetero $18.000 \times 16 = 288.000€$
 - Zonalde VIP: gure diskotekan 3 zona berezi izango ditugu eta hauen alokairua 500€koa da beraz, hilabetero $500€ \times 3 \text{ zonalde} \times 16 \text{ egun} = 24.000€$

Laburbilduz hilabeteko diru sarrerak:

Sarrerak	288.000€
Edariak	288.000€
Zonalde VIP	24.000€
GUZTIRA	600.000€